# Bixente: Altzako alkatea

❖

## *Herriko pertsona maitatuenetakoa hil zen orain dela urtebete pasat*

97-II-18

BADA URTEBETE Bixente hil zitzaigula, baina bere oroimenak Altzako jende artean dirau eta denbora luzean izango da gure artean, ez baitzen edonolakoa gure *Bixente*. Artikulu hau omenaldi txiki bat izatea gustatuko litzaiguke eta aldi berean ezagutu ez zutenei Altzako pertsona berezi honen berri ematea. Hori dela medio, Altzako apaizarengana jo genuen, jakin badakigu Bixentek Altzako apaizarekin harreman handia eduki zuela, eta horri esker guk ere zenbait kontu jakin dugu.

Patxi Albizu apaizak dioenez, gure pertsonaia Altzan jaio zen 1938. urtean. Bere aita ere, Altzako Pio izeneko alguazila, oso ezaguna zen, baina oso arrazoi ezberdinagatik: Jenio txarragatik, alegia. Bixente udaletxeko goiko solairuan bizi izan zen bere arreba Mirenekin; oso ondo moldatzen ziren, asko maite baitzuten elkar. Ez zuen zahartzeko astirik izan: 57 urterekin hil zen minbiziak jota. Hala ere, azken urteak oso pozik igaro zituela dio Altzako apaizak, lagunarte handia zeukanez leku guztietan eta giro ezberdinetan oso ondo onartzen baitzuten. Aldi berean oso gizon irekia zen eta eskuzabalekoa: kalean ibiltzea gustatzen zitzaion eta edozeinekin elkartzen zen, apaizarekin, gaixo nahiz elkartekoekin; hildakoak ere bisitatzen zituen, kanposantua zaintzea bere eginkizunetako bat baitzen.

Bixente zaletasun ugariko pertsona izan zen, pilotazalea, elizkoia, elkartezalea, gaixozalea, baina batik bat idi demak zituen gustuko, zale amorratua zen. Santa Ixabel eguna inguratzen zenean urduri ibiltzen zen, idi apustuak izaten baitziren Altzan. Horretaz gain, gehien gustatzen zitzaizkion jaiak Sanmartzialak ziren, festa horietan bera izaten zen jaun eta jabe, gustukoa zuen dantzan eta festan ibiltzea. Bere zapi berdea janzten zuenean jendeak esaten zuen: «Ahí va Bixente». Oso jaizalea zen.

Lanean aritu zen, hasieran portuan eta gero Altzan, Los Boscos inguruan. Badirudi gaur egun kiroldegia dagoen lekuan lehen uralita fabrika zegoela. Bi leku horietan lanean aritu ondoren, bere ezintasunagatik lana utzi behar izan zuen eta pentsio txiki bat geratu zitzaion. Hala ere, ez zuen inoiz diru arazorik izan, zeukan apurra ondo administratu baitzuen. Egia esan, asko ere ez zuen behar. Bestalde, beti oso eskuzabala izan zen, emale ona. Lanik egiten ez zuenez, bere denbora elizan ematen zuen. Elizara joaten hasi zen eta apaiza laguntzen zuen. Eliza irekiz gero han agertzen omen zen, aulki batean eseri patxarapatxaran eta ohiko galdera klabea egiten zuen: «Zer egin behar da? Zer dago egiteko?». Apaizak dio ez zela oso iaioa hitz egiterakoan, euskara zen bere ama hizkuntza, baina erdaraz ere moldatzen zen zerbait komunikatu nahi zuen unean. Bihotz handiko pertsona zen, eta maitagarria ere bai; jendeak maite zuen. Badago anekdota bitxi bat: Altzako elizaren VI. mendeurrena ospatu zenean, Donostiako alkatea etorri zen eta Bixentek alkateari honako hau esan zion: «Beno, ongi etorri, ni naiz hemengo alkatea eta gaur zuri uzten dizut neure kargua». Alkateari izugarri gustatu omen zitzaion detaile hori, eta beti trafikoa bideratzen ari zenez, alkateak udaltzain trajea oparitu zion, nahiz eta gero erabili ez.



ANDER GILLENEA


ANDER GILLENEA

**Bixente udaletxe gainean bizi izan zen, eta oso gertu dago gaur egun bere irudia ere.**

### APALTASUNA ETA PRESTUTASUNA

Patxi Albizuk Bixenteri buruz aipatu nahi duena zera da: bere ontasuna, pertsona simple batek egin dezakeena herriaren alde eta herriak berak ere nola estimatzen duen bere alde lan egin duen gizon apal bat. Altzan monumentu bakar bat dago, eta hori Bixenteri eskainitakoa da. Bera hil zenean 1995eko urriaren 23an omenaldi bat prestatu zuen Altzako herriak. Arrazoiak, lehen aipatu bezala, bere apaltasuna eta prestutasuna izan ziren. Badirudi omenaldiak fisikari, biologo edo jende adituari egin behar zaizkiola bakarrik, eta hori ez da bidezkoa. Beraz, altzatarrok erabaki genuen monumentu bat jartzea bere oroimenez. Iazko otsailaren 11n jarri zen bere bustoa edo irudia udaletxe eta elizaren arteko jardinean. Herrian oso giro ona zegoen eta planteatu bezain pronto, ideia hau aurrera eraman zen. Irudiarekin batera hitz batzuk ezarri ziren busto horretan: «Eskerrik asko Bixente herriaren zerbitzari leiala izan zarelako, eskerrik asko». Gaur egun Altzako jaiak ospatzen diren egunetan Bixenteren irudiak aldaketa nabarmen bat jasaten du: bustoari txapela eta zapi berdea ezartzen zaizkio, berak ere festan parte har dezan.

Altza Euskaltegiko Ikazi taldea. 8-9. urratsa